



## LANBIDE HEZIKETAKO LANPOSTU HUTSEN PROPOSAMENEI BURUZKO ALEGAZIOAK AURKEZTEKO INSTRUKZIOAK

Epea: 2024ko abenduaren 2tik 13ra, egun biak barne, alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

### Aurkezteko modua:

- **Online inprimaki baten bidez bakarrik:**
  - Sartzeko XLNET-eko erabiltzailearekin identifikatu beharko da.
  - Formularioa sartzeko, **Lurralde Historiko bakoitzerako ondoren adierazten diren estekak** erabil daitezke, dagokion horretan klik egin.
    - [ARABA](#)
    - [BIZKAIA](#)
    - [GIPUZKOA](#)

### Arazo-konponketa:

- Lotura horrekin edozein konexio-arazo izanez gero, CAUrekin kontsultatu beharko da: (945207256).
- Formularioa betetzeari buruzko beste edozein zalantza izanez gero, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Unitatearekin harremanetan jarri beharko da:
  - Arabako Ikastetxeen Lurralde Burutza:
    - [julen-san@euskadi.eus](mailto:julen-san@euskadi.eus) / 945 017230
  - Bizkaiko Ikastetxeen Lurralde Burutza:
    - [b-aranagaelorriaga@euskadi.eus](mailto:b-aranagaelorriaga@euskadi.eus) / 944031062
  - Gipuzkoako Ikastetxeen Lurralde Burutza:
    - [a-lopezpoblacion@euskadi.eus](mailto:a-lopezpoblacion@euskadi.eus) / 943022418

**Alegazioa aurkeztean**, formularioan ezarritako testu-eremuaren luzapenera egokitzea gomendatzen da (**gehienez 2.000 karaktere**).

### Definizioak:

Ondorengoak dira lanpostu hutsen proposamenetan ageri diren zutabeak:

- **IKASTETXEKO LPZ:** Ikastetxe bakoitzeko LPZ-n sartutako plazak dira. Lanpostu berezi gisa edo lan-kontratuko langileentzat edo Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzat gordetako plaza gisa definitutako plazak ez dira lekualdatze-lehiaketa honetan eskainiko.
- **LEHIAKETAKO LANPOSTUAK:** Ikastetxeko lanpostuen zerrendan egoteaz gain, Ikastetxe eta Plangintzaren eta Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzaren iritziz lekualdatze-lehiaketako plazen eskaintzan sartzeko eskatzen diren irizpideak betetzen dituzte.
- **ATXIKITAKO IRAKASLEAK:** Behin-betiko destinoa ikastetxean duten irakasleak dira eta ikastetxe horretako lanpostu bati daude atxikita, nahiz eta praktikan ikastetxean bertan egon eskolak ematen edo, beharbada, beste tokiren batean.



- **LEKUZ ALDARAZITAKO IRAKASLEAK:** Lekuz aldaraziaren izaera duten irakasleak dira, baina lanpostu bat betetzeko eskubidea dute, aukera hori sortzen den unean.
- **GORDETAKO LANPOSTUAK:** Aurreko bi zutabeetako egoerak batzearen ondorioa da. Atxikitako irakasleak eta lekuz aldarazitakoak batuz gero, lanpostua guztira zenbat irakasleri gorde beharko zaien jakingo dugu.
- **LEKUALDATZE LEHIAKETAKO LANPOSTU HUTSAK:** “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza positiboa bada, lekualdatze-lehiaketan eskainiko diren lanpostu hutsak lortuko dira.
- **ESTALITAKO BIGARREN ALDIKOAK:** “Lehiaketako lanpostuak” eta “Gordetako lanpostuak” zutabeen arteko kenketa da. Kenketaren emaitza negatiboa bada, lekualdatze-lehiaketan estali beharreko lanpostuak zeintzuk diren jakingo dugu, hau da, lanpostu horiek, nahiz eta ikastetxeko irakasle bat lekuz aldatu, ez dira lanpostu huts bezala eskainiko, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun horretako beste irakasle batentzat gorde beharko baitira, atxikitakoa edo lekuz aldarazitakoa.